

LANGILEAK, SUBJEKTU edo OBJEKTU

**Sindikalgintza trantsizio energetikoaren
aurrean**

**Euskal Herria, ez ohizko argazki
interesgarri bat**

ABIAPUNTUZKO GOGOETA

- **Trantsizioa egingo da, BEHAR DUGU**
- **Nork zuzentzen duen eta nola egiten den da auzia, EZ DA DEMOKRATIKOA**
- **Klase-genero-nazio gatazkak markatuko du KONTSENTSURIK EZ**

NIRE INTERBENTZIOA

- **Nola iristen gara langileak trantsizio honetara?**
 - Egoera, tresnak, proposamenak, adostasunak
 - Euskal sindikatuak, tresna eraginkorrak subjektuak izateko?
- **Gogoeta barrutik eta esperientziak erakutsitakoa baliatuz**

EUSKAL SINDIKATUAK, tresna izan gaitezke

- **BADAGO NONDIK HASI:**

- Jardunaldi eko-sozialistak, sindikatuan mahai ingurua
- Naturaren mugak errespetatu: bestelako produkzio eta kontsumo eredu bat. Kontsumoak kontsumitzen gaitu. KARTA SOZIALA
- Bizitza erdigunean: bermatu behar diegu ondorengo belaunaldiei biziraupenerako beharrezkoa diren oinarrizko baliabideak eredu sozioekonomiko baten bitartez zeinek gure natur baliabideak kontserbatzen eta iraunarazten lagunduko duen. KARTA SOZIALA
- 6. neurria: Gure eredu sozio-produktiboaren antolaketan aintzindari izango den sektore publiko indartsua sustatzea (energiaren ekoizpen eta komertzializazioaren gaineko kontrol publikoa ziurtatuko duena). PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOA
- 10. neurria: Pertsonak, Herriak eta Natura lehenetsi beharra dago multinazionalen etekinen gaineratik. PROGRAMA SOZIOEKONOMIKOA

EUSKAL SINDIKATUAK, tresna izan gaitezke

–

BIDE LUZE BATEN EMAITZA

- Lemoiz, Garoña, AHT, Errasgailua... langileon borrokak
- Soldatak hobetzera mugatzen ez den langile borroka
 - 99ko greba orokorra. Elkarrizketa sozialaren apurketa.
 - 2009ko greba orokorra. Sistema berriaren aldarria krisiari erantzunez.
 - 2013ko greba orokorra. Alternatibaren premia hazkunde ekonomiko honen aurrean
- LAB bidea egiteko urratsak
 - 99 autokritika, 2000 prekarietatea ardatz, 2003 programa sozioekonomikoa, 2015 hazkunde ekonomiko honi ez!. 2016 sindikalismoa birpentsatuz

EUSKAL SINDIKATUAK, tresna izan gaitezke

- **Langile mugimenduaren bilakaera propioa**
 - Herri antolakuntzaren aldeko apustu sendoa
 - Sindikalismoak ez du espazio guztia okupatu
 - Herri mugimenduak posizioak erraztu eta behartu ditu
 - Gatazka politikoa, testuinguru berezia
 - Klase gatazkarako marko propioa
 - Klase borrokarako baldintza berezituak
 - Eredu sindikaletan ondorio zuzenak
 - Sindikalismo soziopolitiko nagusi
 - Konfrontaziozko sindikalismoa izaeraz
 - Aliantzak behar eta bilatzen dituen sindikalismoa

EUSKAL SINDIKATUAK, tresna izan gaitezke

- **Ibilbidearen emaitza**

- Sistema eraldatu nahi duen mugimendua
- Langileen artean indarra duen tresna
- Aliantzak dituen mugimendua: ekologismoarekin, feminismoarekin, gazteriarekin
- Sindikalismoaren krisi estrukturalari ihes egiteko bideak eraiki nahian

Trantsizio energetikoa Euskal Herrian

• Gaurko eredia

- Energia gehiegi lapurtzen dizkigun eredia
 - Produkzioa oinarri, zer eta nola produzitu eztabaidatu gabe
 - Internazionalizazioa – lehia - prezioak. Langileak neurrira
 - Sortzen den aberastasuna gutxi eta gaizki banatuz.
- Prekarizazioa, eraldaketarako gaitasuna eta energia lapurtzen gaituen dominazio sistema
- Erreformak – trantsizioak – aldaketak
 - Botere ekonomikotik ezarriak eta instituzioetatik bideratuak: publikoa pribatuaren zerbitzura, industria eta energia politikarik gabe
 - Turismoa, alternatiba-hondamendia

Trantsizio energetikoa Euskal Herrian

- **KORAPILOAK**
 - Enplegua vs ingurumena.
 - Prekarietatearen kontrako borroka, lehentasunen auzia
 - Publikoaren lidergoa, ekonomiaren kontrola berreskuratzeko bideak.
- **ERRONKA: TRANTSIZIORAKO GIDOI PROPIOA**
 - Publiko-pribatu + herri ekimena
 - Eraiki-desegin + espazioak kendu kapitalari
 - Instituzioetatik-kalean + aliantza politiko dialektikoak

PROPOSAMENAK

- **Gure eskuetan dagoena egin**
 - Sindikalismoa kultura berrietarako espazioa
 - Ekintza sindikala energia politika berrietarako borroka tresna
 - Alternatibak saretu eta elkar-elikatu: aliantza sendo eta emankorra
- **Eredu berriaren eraikuntzarako prozesu politikoa**
 - Erabakiak hartzea, gure buruaren jabe egingo gaituena
 - Eredu sozioekonomikoz aldatzea, gure etorkizunaren jabe egiteko
 - Prozesu eratzailea, trantsizioaz erabakiak gure kabuz eta gure ekimenez
 - Subjektua berrosatu: KARTA SOZIALA
- **Aukerak baliatu**
 - Mobilizazio fase – ziklo berria
 - Erabakitzeko eskubidea – estatus berriak
 - Espazio soberanistaren berreraikuntza: langileriaren herri proiektua